



**Arartekoaren Ebazpena, 2011ko urriaren 3koa, Zaramaga auzunean kultu musulmanerako zentro berria irekitzearen inguruko arazoetan jarduteko moduari buruzko ondorioak emateko.**

### Aurrekoak

1. Ararteko erakundeak hainbat idazki eta eskaera jaso du, Gasteizko Zaramaga auzunean sortu den gatazkari buruzko gure iritzia emateko, erlijio musulmaneko pertsona-talde batek kultuko zentro bat irekitzeko erakutsi duen asmoa dela-eta.

Alde batetik, SOS Arrazakeria elkarteak eskaera bidali zigun, udalerrian erlijio-askatasuna erabiltzea bermatuko duen erakunde arteko akordioa bideratze aldera.

Bestetik, Vitoria-Gasteizko Udalaren bitartekotza zerbitzuak, auzokideen elkarte batek eskaturik, Arartekoarengana jo zuen, esku har dezagun eta akordioa lortzeko modua eman dezagun.

2. Bi eskaera horiek baloratu ondoren, herri administrazioen jarduketak berrikusteko erakunde gisa betetzen duen eginkizunaren barruan, Arartekoak egoki iritzi zion ofiziozko espedientea hasteari, herri administrazioek ondoko gertaera hauen inguruan izan duten jarduketa aztertzeko xedez:
3. Elkarte batek, 2010eko abenduan, baimena eskatu zion Vitoria-Gasteizko Udalari, obrak egiteko eta bilkurarako eta kulturako jarduera gauzatzeko Zaramaga auzunean.

Udalak jarduera-lizentzia lortzetik salbuetsitako jardueren zerrenda ezarri duen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuarekin bat etorritz izapidetu zuen eskaera.

4. Udalak, 2011ko martxoaren 7an, obra-lizentzia bat eman zuen lokala erlijio-kultuko zentro gisa birgaitzeko, eta hainbat neurri osagarri sartu ziren, salbuetsitako jarduera horren ondoriozko eragozpenak galarazteari buruzkoak.
5. Zaramaga auzuneko auzokide-talde batek, kultuko zentro hori irekitzekotan zela jakitean, Udalera jo zuen proiektuaren egokitasuna zalantzan jartzera. Ondorioz, auzuneko zenbait auzokidek mobilizazioak egin zituen proposaturiko kokapenarekin ados ez zeudela adierazteko.
6. Bestetik, gizarte bizikidetzatza jartzen duten jokabide bakan batzuk gertatu ziren (ibilgailua erretzea eta animalien hondarrak jaurtitzea).
7. Jarduketa horri izapide egokia emateko beharrezko informazioa biltzeko asmoz, Arartekoak eskaturik, bilerak izan ziren jarduera sustatzen duen elkartearekin eta Iparralde-Zaramaga auzokideen elkarteko ordezkariekin.





Hauxe da, nagusiki, auzokideek proiektua zalantzan jartzeko azaltzen duten zioa: pertsonak lokalean eta inguruetan biltzearen ondoriozko eragozpenak, zeren eta egoitza-eraikin batean baitago kokaturik jarduera.

Lizentzian ezarritako segurtasunaren eta lokalean sar daitekeen pertsona-kopuruaren inguruko arauen ustezko ez betetzea da auzokideen kritikaren abiapuntua. Horregatik, aukeraturiko lokalak eragozpenak galarazteko eskakizun egokiak betetzen ez dituela irizten diote eta, beraz, beste kokaleku bat bilatzea proposatzen dute.

Bestalde, jarduera sustatzen duen elkarteak kultuko lokala irekitzeko eskubideari eusten dio, eta hirigintza eta ingurumenaren gaineko araudian ezarritako zehaztapenak betetzea hitzartzen du. Nolanahi ere, elkarteak garrantzizkotzat jotzen du Zaramaga auzuneko auzokideen arteko bizikidetzaren eta gizalegearen alde egitea. Hori dela-eta, auzokideen erantzuna ikusita, obren hasiera atzeratzea erabaki du, egoera baretzeko. Hala, zentroa beste kokaleku batean irekitzea ahalbidetuko duten balizko akordioak hartzeko prest daudela adierazi dute.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak kokaleku berriak proposatu zituen. Jarduketa horri esker, beste lokal bat bilatu ahal izan da, baina berriz ere baztertu egin zuten inguruko auzokideek.

8. Ofiziozko jarduketa horri dagokionez, Arartekoak informazioa eskatu zion Vitoria-Gasteizko Udalari, bilkuretarako zentrorako lokalean obrak baimentzeko jarraituriko administrazio-izapideari buruzkoa eta Udalak gatazkan izan duen posizioari, gatazkan legea betearazteari eta kultuko zentroetan zaratei eta bestelako inguruabarrei dagokienez izaten diren gorabeherai buruzkoa.

Udalak salbuetsitako jarduera- eta obra-lizentzia eman zuela jakinarazi zigun; horri esker, obrak egin daitezke lokalean. Lizentzia lortuta, legitimatuta daude obrak burutzeko eta jarduera ezartzeko. Hainbat baldintza biltzen ditu lizentziak, eta horien artean, 98 pertsonarentzako tokia ezarri da.

Udalak jakinarazi zigunez, kultu musulmaneko beste zortzi zentro daude Vitoria-Gasteiz udalerrian. Ingurumen eta Herri Guneen Udal Sailean, ez da jaso zentro horietako zarataren edo bestelako inguruabarren inguruko gorabeherarik.

Bestalde, Udalak alegatu du kultuko zentroa irekitzeko eskubidea eta zenbait auzokideek kontra azaldu izana bateratzen saiatu dela – arrakastarik gabe-.

Ararteko erakundea arautzen duen legearen arabera, “Legebiltzarrak Konstituzioaren I. Idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dioenez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-estatutuaren 9. Atalak dakartzan demokrazia-oinarri-irizpide orokorrak bete daitezenez arduratzeko jarritako goi-karguduna da Arartekoa”. Erakunde mailako ikuspegi horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko





Herriaren Defendatzaileak ordenamendu juridikoaren xedapen eta printzipioen arabera proposaturiko kontua aztertuko du, legea, pertsonen oinarrizko eskubideen babesa eta administrazio egokia behar bezala beteko direlakoan.

Aipatutako informazioa, alegaturiko gainerako inguruabarrak eta azpimarratutako balorazio irizpideak oinarri hartuta, ondoko oharbide hauek jakinarazi nahi dizkizut:

### Oharbideak

1. Honako ebazpen honen xedea da Vitoria-Gasteizko Udalak Zaramaga auzunean kultu musulmaneko zentro bat irekitzeko jarraitu dituen udal izapideetan izandako jarduketa aztertzea.

Ingurumenean izan litekeen eraginen bat sor dezaketen jarduera pribatuak eta eraikuntzetan egiten diren obrak eta erabilerak hirigintzaren aldetik kontrolatzearen inguruan udal administrazio horrek dituen eskumenek izan behar dute abiapuntua.

Nolanahi ere, kultuko toki bat irekitzeko erlijio erkidego baten asmoa oinarrizko eskubide eta askatasunen eremuan kokatu behar da, bereziki Konstituzioaren 16. artikuluan onaturiko erlijio-askatasunerako eskubidearen arabera, baita Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikuluan eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 18. artikuluan xedaturikoaren arabera ere.

2. Termino horiek izanik, elkarte batek gune pribatuan jarduera bat abiarazteko asmoaren aurrean, hirigintza eta ingurumenaren ingurukoa da soilik tokiko administrazio horren eginkizun nagusia.

Honako bi hauek zehaztu behar dira. Udal baimen objektibo, arautu eta neutroaren bidez egiten da administrazioaren kontrola. Kontrol hori ondo baino hobeto dago zehazturik gure ordenamendu juridikoan eta, beraz, ez dago legeen aldetik hutsunea dagoela esaterik.

Herri botereek elkarte edo erlijio jardueren kontrolaren inguruan duten eginkizuna erabat objektiboa da, zeren eta ezin esku hartu, baloratu edo ordeztu baitezakete pertsonak biltzeko lokal hori eratzeko duten asmoa. Halaber, hirigintzako lizentziak araturiko egintzak dira, non administrazioak eskumen-marjinarik ez duen sustatzaileak obrak egiteko duen asmoaren inguruan. Lizentzia emateak eragin litzakeen egoera juridiko pribatuak alde batera utzita ematen dira lizentziak. Ildo horretan, Konstituzioaren 9.1. eta 103.1. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalak legezkotasun printzipioaren arabera jardun behar du, eta ezin egon daiteke hirigintza eta ingurumen legerian ezarritakoak baino beharkizun gehiago.





Kultur jardueretarako lokalak irekitzeko kasuetan administrazioaren jarduketa nahikoa araupetzen duten arau juridikoak daude. Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak aurretiaz kontrolatzen dituzte halako jarduerak, obra-lizentzia egokiaren bidez eta, kasu honetan, salbuetsitako jarduera-lizentziaren bidez.

Bestalde, Euskal herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legean ezarritako jarduera-lizentzia lortzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda ezarri duen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren III. eranskinean xedatu denez, kultur eta erlijio zentroetan eginiko jarduerak, egoitza-eraikin bateko beheko solairuan edo soilik erabilera horietarako den eraikin batean kokaturik daudenean, ez du jarduera-lizentziarik behar, salbu eta dantza, kantu edo musika jarduera badakar berekin.

Hirigintza eta ingurumen baimen horretan baloratu behar da jarduerak ingurunean izan dezakeen eragina, eta beharrezko neurriak ezartzen dira zarata, osasungarritasun eta gehiegizko pertsona-kopuruaren inguruko arazoak galarazteko.

Interes publikoa arautu beharrak ekarri ditu hirigintza eta ingurumenaren gaineko arau horiek, eta kasu honetan, jardueraren sustatzaileek interes legitimoa betetzeko duten eskubidean zehazten da, hots, higiezinak baimendutako hirigintzako erabileren arabera erabiltzeko eta pertsona guztiek kalitatezko hiri ingurumena gozatzeko duten eskubidea izateko.

Obra-lizentzia lortutakoan, elkarrekin eskubide osoa du obrak hasteko eta, ikuskapenaren ondotik, kultuko zentroa irekitzeko.

Bestalde, alboko pertsonak edo prozesuan interesa dutenek administrazioko izapideei buruzko nahikoa informazioa izateko, balizko eragozpenak ezartzeko prozeduran parte hartzeko eta zuzenketa neurriak ezartzeko prozesuan parte hartzeko eskubidea dute<sup>1</sup>. Halaber, jarduera hasitakoan, erabileraren ondoriozko baliozko eraginak arintzeko edo konpontzeko ezarritako zuzenketa neurriak betetzeko exijitu dezakete. Udalaren ikuskaritza organoei dagokie ondorengo kontrol hori; edozein gertaerari eman beharko diote erantzuna.

Horrenbestez, ordenamendu juridikoan ezarritako hirigintza eta ingurumenaren gaineko aurretiazko kontrola baino ez du egin behar udalak erlijio zentro berriak irekitzeko. Bestalde, ezarritako zuzenketa neurriak betetzeko asmo legitimoek jardueraren funtzionamendua galarazteko ez baizik eta ikuskapen-lanak eskatzeko balio behar dute eta, hala denean, diziplinakoak, neurriok bete ez direla egiaztatzen denean.

---

<sup>1</sup> Arartekoaren 6/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 30ekoa, dokumentazio publikoaren gardentasunari eta hura eskuratzeko eskubideari buruzkoa. Bereziki, ingurumenari buruzko informazioa lortzeko.



3. Vitoria-Gasteizko Udalak alegatu duenez, zenbait bizilagunen protestek eragindako gatazka konpontzeko xedez esku hartu du. Herri administrazioek eta botereek arazoak eta gatazkek konpontzearen aldeko jarrera aktiboa izatea goragarria da eta modu positiboan baloratu beharra dago.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago, aztergai dugun gai horri dagokionez, administrazio publikoen eta euren arduradun politikoen jarduketak zorrozki lotu behar zaizkiela zuzenbide-estatu demokratikoaren eta sozialaren oinarriek ezarritako parametroei. Zehazkiago legezketasun printzipioaz (Konstituzioaren 9.1 eta 103.1. artikulua), oinarriko eskubideak nagusitzeaz (Konstituzioaren 10. artikulua eta I. titulua), gutxiengoak babesteaz (Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua), berdintasun eta diskriminaziorik ezaren gaineko eskubideez (Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. artikulua eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.1 eta 26. artikulua) eta balio demokratikoen sustapenez eta defentsaz ari gara. Gizarte bizikidetzaren lortzearen menpean egon behar dute botere publikoetako arduradunek gatazketan duten jarduketek, betiere arestian aipaturiko helburuak oso-osorik errespetatuz.

Botere publiko guztien egitekoa da balio horien alde egitea eta jardun xenofoboak edo islamofoboak ekar ditzaketen jokabideak galaraztea. Europako herri-defendatzaileen erakundeok, Ombudsman-en Nazioarteko Erakundeak Bartzelonan 2010eko urrian eginiko (IOI) Batzar Nagusian, fenomeno kezkarri hau Europan zabaltzeko joera horren inguruko kezka azaldu genuen. Giza eskubideen europar komisarioa den Thomas Hammarberg-en hitzetan: *"islamofobiak eta musulmanen kontrako aurreiritziek tolerantzia ahultzen jarraitzen dute Europan"*<sup>2</sup>.

Berdintasuna ulertzeko moduan sakondu beharra dago, baita gure ezberdintasunak onartzeko moduan ere<sup>3</sup>. Kultur eta erlijio aniztasunaren eremuko politika publikoen xedea ez da soilik elkartasun hutsa, baizik eta gizarte kohesioan aurrera egiteko ezinbesteko tresna bilakatu behar dute<sup>4</sup>.

Legezketasun printzipioaren arabera, ordenamendu juridikoan ezarritako baliabideen arabera baizik ezin esku har dezake administrazioak herritarren jardueran, betiere jarduera horretarako ahalmena ematen dion araudia oinarri hartuta. Zentro berriak irekitzeak eragindako nahigabeak eta udalak aipatzen duen bizikidetzaren baketsua zaintzeko interes publikoak ez dute eragotzi behar udalaren jarduketa hirigintza edo ingurumenaren gaineko legeak babesteko udal eskumenen barruan kokatzea.

---

<sup>2</sup> [http://commissioner.cws.coe.int/tiki-view\\_blog\\_post.php?postId=157&highlight=](http://commissioner.cws.coe.int/tiki-view_blog_post.php?postId=157&highlight=)

<sup>3</sup> Luigi Ferrajoli (1995), *Derecho y razón*, Madril: Trotta, 906. or.

<sup>4</sup> José Manuel López Rodrigo (2009), "La gestión de la diversidad religiosa desde la perspectiva pública", *Laicidad y libertades: escritos jurídicos*, 9, 1. lib., 297-337. orr.





Udal administrazioek esku hartzeko marjina dute herri guneak bizikidetzeta eta gizalegerako gune gisa atxikitzeko, herritarrek herri guneetan dituzten jokabideak arautzen dituzten ordenantzen bidez. Vitoria-Gasteiz udalerriri dagokionez, herri guneen erabilerari eta aisialdiari buruzko ordenantzaren bidez arautu da gaia, eta herri bideko zaratari dagokionez, berriz, zarataren eta dardaren kontrako Udal Ordenantzarekin. Kasu honetan, erlijio zentroa irekitzeak, jarduera pribatuaren erabilerari eta garapenari dagokienez gero, ez dakar berekin herri guneen erabileraren gaineko arazoa.

Garrantzizkoa da adieraztea kultuko antzeko beste zentro batzuetako jarduerak ez duela bizikidetzeta arazorik sortu. Bidalitako udal txostenaren arabera, kultu musulmaneko zortzi zentroetan ez da salaketarik izan ildo horretan.

4. Erlijio erkidego batek kultuko toki bat irekitzeko ekimena oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuaren eta sustapenaren barruan kokatu beharra dago. Auzitegi konstituzionalaren hitzetan, oinarrizko eskubideen titularitatea *“ez dagokie soilik banakoei, bakoitza bere aldetik, baizik eta talde eta erakundeen barruko kideak diren aldetik ere bai, zeinen xedea zenbait askatasun eremu edo oinarrizko eskubidearen oinarria diren balioak edo interesak berriaz defendatzea den”*<sup>5</sup>.

Honako kasu hau Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan bildutako oinarrizko eskubidearen barruan dago, hots, banakoen eta erkidegoen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturkoa, muga bat besterik ez duela adierazpenetan: ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa dena. Erlijio Askatasunari buruzko 7/1980 Lege Organikoak ‘ordena publikoa’ terminoaren esanahia zehazten du: *“gainerakoek askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak erabiltzeko duten eskubidea babestea, baita segurtasuna, osasuna eta moralitate publikoa zaintzea ere”*.

Estatuko legegileak ez du egokitzen jo orain artean erlijio askatasunaren eskubidearen gutxieneko edukia garatzea. Hala ere, hauxe adierazi du Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 18. artikuluari buruz eginiko jatorrizko interpretazioan, azalpen gisa: *“Norberaren erlijioa edo norberaren sinesmena adierazteko askatasuna ‘banaka edo taldeka egin daiteke, jendaurrean nahiz toki pribatuan’. Jarduera-sorta zabala hartzen du erlijioa edo sinesmenak kultuaren, errituen ospakizunaren, jardunaren eta irakaskuntzaren bidez adierazteko askatasunak. Sinesmenak zuzenean adierazteko errituetara eta ospakizunetara hedatzen da kultuaren kontzeptua, baita ekintza horien barruko hainbat jardunetara ere, honako hauek barne direla: kultuko tokiak eraikitzea, erriturako formulak eta objektuak erabiltzea, sinboloak erakustea eta erlijio jaiak eta atsedenaldiak betetzea. Erlijioa edo sinesmenak betetzearen eta horien inguruko praktikaren barruan, ospakizunak ez ezik ohiturak ere izan daitezke hala nola arau dietetikoak betetzea, bizitzako zenbait etaparekin lotutako errituetan parte hartzea eta soilik taldeko kideek erabili ohi duten hizkera berezia erabiltzea. Gainera,*

---

<sup>5</sup> Auzitegi Konstituzionalaren 64/1988 Epaia, apirilaren 12ko, 1. Oinarri juridikoa.



*erlijioaren edo sinesmenen praktikak eta irakaskuntza erlijio-taldeek beren oinarrizko jarduerak burutzeko moduaren barruan sartzen dira, eta halaxe gertatzen da buruzagi erlijiosoak, apaizak eta maisuak aukeratzeko askatasunarekin, seminarioak edo eskola erlijiosoak ezartzeko askatasunarekin eta testu edo argitalpen erlijiosoak prestatzeko eta banatzeko askatasunarekin<sup>6</sup>.*

Kultuko zentroak irekitzeko, hirigintza eta ingurumenaren gaineko legerian ezarritako mugak baizik ez dira bete behar, hain zuzen erabiltzaileen segurtasuna behar bezala kontrolatzen dela bermatzeko eta hirugarrenei eragin dakizkiekeen eragozpenak galarazteko.

Kexan jasotako datuak, tartean diren administrazioek bidalitako informazioa eta arestian aipaturiko oharbideak oinarri hartuta, ondoko hauek emango ditugu:

### Ondorioak

1. Arauturiko ahalmena da erlijio erkidegoek erlijio zentro berriak irekitzeko asmoaren inguruan udalak izan behar duen jarduketa, modu objektiboan aplikatu beharrekoa ordenamendu juridikoarekin bat etorriz. Udalak aurretiazko kontrola baizik ez du egin behar, hirigintza eta ingurumenaren gaineko legerian ezarritakoa; proiektua hirigintzako araei, segurtasun ezarpenei, eraikuntzetan sar daitekeen pertsona-kopuruari eta inguruan bizi direnei eragozpenak galarazteko moduari egokitzea arautzen du legeriak. Beharrezko obrak egindakoan, eta jarduera martxan jarri ondoren, horren inguruan ezarritako zuzenketa neurriak betetzen direla kontrolatu behar du administrazioak.

Erljio Askatasunari buruzko 7/1980 Lege Organikoan ezarritako mugak baizik ez daude kultuko zentro berriak irekitzeko. Botere publikoek erlijio erkidegoen ekimena bermatu behar dute indarreko legerian ezarritakoaren arabera ireki dadin zentroa.

Ondorioz, Gasteizko Zaramaga auzunean egitekoa den erlijio kultuko zentroaren talde sustatzaileak legearen erabateko babesa du obrei ekiteko eta zentro hori udal lizentzian ezarritakoaren arabera irekitzeko. Udalak legea betetzen dela zaindu behar du.

2. Bestalde, alboko pertsonak edo prozesuan interesa dutenek eskubidea dute administrazioiko izapideei buruzko nahikoa informazioa izateko, balizko eragozpenak ezartzeko prozeduran parte hartzeko eta zuzenketa neurriak ezartzeko prozesuan parte hartzeko. Halaber, jarduera hasitakoan, erabileraren ondoriozko baliozko eraginak arintzeko edo konpontzeko ezarritako zuzenketa neurriak betetzea exijitu dezakete.

---

<sup>6</sup> Giza Eskubideen Batzordea, 22. *Ohar Orokorra. 18. artikulua – Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna*, 1993, CCPR/C/21/Rev.1/Add.4, 4. paragrafoa.



3. Udalaren bitartekotza-lanak jardueraren sustatzaileen eta auzokideen arteko solaskidetza atxikitzeke balio behar du, jarduera egiteko eskubide legitimoa erabiltzeko hirugarrenei eraginik edo eragozpenik sortu gabe. Bitartekotzak ez du inola ere zalantzan jarri behar jardueraren sustatzaileek kultuko zentro berriak irekitzeko duten eskubidearen erabilera. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago, aztergai dugun gai horri dagokionez, administrazio publikoen jarduketak zorrozki lotu behar zaizkiela zuzenbide estatu demokratikoaren eta sozialaren oinarriek ezarritako parametroei.

